

**Martirietako bidea zabalik dago jada.** Urte hasieran luiziak emandako errepidea berreraikitzeke lana handienak amaitu ditu Foru Aldundiak, eta gaurtik erabiltzeko moduan da bidea. Halere, lanak ez dira guztiz amaitu: errepidea egokituta dago, baina azkeneko asfaltu geruza botatzea falta da eta lurak egonkortzeko lanak ez dira guztiz bukatu. Horregati, behin behinekoz irekitzea erabaki da, betiere dagokion segurtasun neurri guztiak hartuta: eusteko elementu batzuk jarri dira eta abiadura mugatu egingo da obrek hartzen duten zatian.